

Florenia, loreen bailara

Lore eta landare mota ugari ikus daitezke Urruñako Florenia parkean



■ Hiru kilometrotako ibilbidean lore mota asko ikus daiteke.

Florenia parkeko
lekurik
interesgarriena
larrosategia da.
Bertan 30 larrosa
mota baino
gehiago ikus
daitezke. Usain
gozoa sumatzeen da
bertan, eta
edertasun
paregabea

kera sartu ahala, hiru kilometroko ibilbidea egin daiteke, nahiz eta bidea laburtu daitekeen, bisitariak hala nahi badu. Bide guztia asfaltaturik dago, eta edozein jende motarentzat dago prestatua, haurrengandik hasi eta hirugarren adinekoentzat bitarte, eta baita gorpildun aulkian dabilzanentzat ere. Parkea bisitatzeko sasoirik egokiena apirila eta uztaila bitartean da. «loreak

orduan baitaude ederren». Beatriz Faizon ardura-dunak jakinarazi digun bezala.

Parkearen lehendabiziko partea pinudiak hartzen du. Parkea eraiki zenetan, 1991 eta 1992 urteen artean, bertan zegoen pinudia mantendu zuten-egun, 40 bat urte dituzte pinuek-. Horien inguruan makina bat landare hazten da, oro har, hezetan altua behar dutenak, eta lur azidoetan hazten direnak. 10.000 erraboil landatzen dituzte urtean inguru horretan, tulipanak eta gisakoak batik bat. Maiatzean, berriz, bertze 10.000 lore landatuko dituzte, alegriak, berbenak... Inguru horretan ere makina bat hortentsia, azalea japoniar (500 ale baino gehiago daude landare berezi honetatik),

magnolia, kamelia eta bertze aurki daitezke.

■ 30 larrosa mota

Bidean aitzinera egin ahala, apaizaren lorategira iristen da. Lorategi ttipia da, arbolaz inguratua. «Apaizen lorategi guztiek bete behar dituzten hiru osagaiak biltzen ditu: sukaldaritzarako landareak eta frutabolak, gero konfiturak egiteko; sendabelarrak; eta etxearen apaindurarako erabiltzen diren loreak», azaldu digu Faizonek.

Gune interesgarrienetakoa larrosategia da. Bertan 30 larrosa mota baino gehiago ikus daitezke, horietatik gehienak antzinakoak. Usain gozoa sumatzeen da bertan, eta edertasun paregabea. Hala ere, eremu hau handitzeko «zailtasun handiak» daudela aitortu digu Beatriz Faizonek, «loreetako batzuk ez baitira bi aldiz loratzen».

Parkeko ikuspegiarik politenetakoa mediterraneoko te-

rrazetan dago. Mediterraneoko lurraldeetako lore eta landareak nabarmentzen dira gune horretan, izpiliku, Italiako altzifre, mimosak...

Terrazen beheko aldean, parkea eraiki zenean egindako aintzira ttipi bat dago, loto loreek udan osorik estaltzen dutena. Horiekin batera, makina bat uretako lore eta hezetan handiko eremuetan hazten direnak biltzen dira. Japoniako arrainekin eta dortokekin batera. Parkearen azken eremua, berriz, eraiki aitzinean zeuden haritzekin dago osatua nagusiki, baina baita bertzelako landarediarekin ere. Hau da, pinudiarekin batera, gizakiaren eskua-
ren eragina gutien jasan duen lekua. Orain kaktus lorategi bat egin nahi dute arduradunek. Halaber, makina bat ekintza antolatzen dituzte urtean, loreekin loturiko azokak batik bat. Zalantzarik gabe Florenia da Euskal Herriko lekurik ederrenetakoa.



■ Florenia bisitatzeko garairik onena udaberria da.

EUSKAL HERRIKO lore parkerik handiena da Florenia. Urruñako lurretan kokatua, Behobiatik hiru kilometrora dago parke hori, bailara-tpi batean egituratua. 18 hektareako lur eremua hartzen du parkeak, eta hainbat gune ditu.

Urruñatik Behobiara doan errepidean eskuinean gelditzen da parkea, errepidetik hurbil. Bisitarietako makina bat zerbitzu eskaintzen dio parkeak. Bere sarreran, bertzeak bertze, kafetegia, loreak, loregintzako osagaien salmenta eta oparien denda ttipia. Par-

GORRITI MINTEGIA

* Baratzeko landareak: Tipula, porruak, letxugak eta abar.

* Kalitate oneko piper eta tomateak.

Bista-Eder baserria. Atxega-Alde poligonoa. USURBIL - Tel.: 943 36 14 63

AGIN



JOAKIN
PAGOLA


Arkitekto paisajista (I.M.)

Parke eta lorategien diseinua

ITXASKU BERRI - Tel.: 943 37 25 53 - USURBIL

LOREAK HUNTZ

Matia, 44 - Tel.: 943 31 06 41 - DONOSTIA



Loreak
Landareak
Lore lehorrak
Ezkontgai sortak

OÑATI

JACARANDA LOREAK

ARCCO

Irun plaza, 6 - 1. solairua
© 943 46 57 55
DONOSTIA

Goizeko 10etatik
gaueko 10etara
IREKITA



D.M.P.

dimarpe, s.a.

Biltegi bateratzearen hurrengo zabalera
Oria etorbidea, 6

◀ mangerak eta
ureztatzeko tresnak
◀ tutueriak eta
akzesorioak

Oria etor., 6

Tel.: 943 37 26 86

Faxa: 943 37 33 03

20160 LASARTE-ORIA